

...eta kittedo!

Eibarko Kultur Egoerari Gainbegiraka


Kultura natura ez den guztia dela esan ohi da. Kultura herri baten portaeran oinarritzen da eta gizarte guztiak dute beste herrietatik bereizten gaituen kultura. Eibartarrok ere geure kultura dugu nahiz eta ekintza kulturalak mamu baten zapi atzean izkutaturik egon. Irtenbidea zapi hori desestaltzea litzateke baina antza denez lan nekosoa suertatzen da.

Kultura esan bezala izkutaturik aurkitzen da eta horren arrazoirik nagusia azpiegituraren eskasian funtsatu genezake. Gure herrian kulturaren alde lan apurra egiten dutenak bakarti sentitzen dira nahiz eta jendea kulturaz asetu izan nahi; baina badirudi eibartarrok ez dugula «mugida» horretan bustitzeko gogorik.

Eibarren kultura hil zorian dago eta egoera honek bapateko soluzioak eskatzen ditu. Urtean barrena ekintza kulturalak gutxiengoak dira eta argi dago jendeak nahiago duela txurrutean ibili eta bustitzea, kulturaren alde lan egitea, baino. Hala ere, gezurra esango genuke inolako ekintza kulturalik burutzen ez direla adieraziz, zeren urtean zehar hainbat arlotan ikuskizun bereziak antolatzen dira; baina ekintza entzutetsu hauen bitartez ez dugu geure herriaren egoera tamalgarria suspertuko.

Kultura dastatzen

Kultura hitzak interpretazio ezberdin ugari ditu; baina artikulua honen bidez eibartarrok portaera ezagutu izan nahi dugu kulturarekiko eta bereziki irakurzaleak garen jakin nahi genuen, baita ere ea eibartarrok musika atsegin zaigun eta erosten dugun jakitea. Interes honen arabera esan dezakegu, orokorrean, eibartarrok ez garela irakurzale amorratuak; ordea, musika atsegin dugula begibistakoa da, Musika Banda Sostoa korala eta herrian kokatzen diren Rock taldeak kontutan hartzen baditugu. Belaunaldien ezberdintasuna igartzen da, hots, jende gaztea da interes gehien erakusten duena liburu eta disketaz jabetzerakoan. Gizarteak kultura baldintzatzen du eta askotan ohiturak aldatzea oso zaila suertatzen da. Horrela huts egiteko beldurrik gabe esan dezakegu eibartarrok ez dugula irakurtzeko ohiturarik, honek suposatzen duen kulturaren hedapenerako oztopoekin. Badirudi jendeak liburu luxuzko artikulotzat jotzen duela eta gehienetan prezio altuen aitzakia erabiltzen dugula estalki modura liburuak erosten ez ditugula esateko. Saltzen diren liburu mota gehiena nobelak izaten dira eta gabonak izaten dira liburutegietara hurbiltzeko garairik egokiena, dirudienez. Azken urteotan, urtero berdintsu xamar saldu bada ere eskoletan hurrei irakurtzeko zaletasuna berreratzen ari zaielako edo, salmentetan gorakada apur bat igarri dute liburu- saltzaileek.



Begiak itxi ala ireki zeuk erabaki


Klientela finkoa da ordea liburutegien bizia ziurtatzen dutenak eta irakurzale amorratu hauen asetu beharrak mantentzen dituzten liburutegien ateak irekita. Bestalde, musika arloan zaletasuna nabaria da gehienbat gazteen artean nahiz eta disken prezioen igorakadak izutzeko arriskua sortu. Gabonak ere izaten dira urteko unerik aproposena diska bat erosteko. Musika negozio emankorra da zalantzarik gabe eta Eibarren ditugun diska dendak ederki dakite hori, halere somatzen dute askotxok nahiago dutela Bilbo edo Donostira hurbiltzea aukerak ere zabalagoak dira eta. Musika jadanik bizitzako arlo guztietara hedatu da eta horren adibiderik argiena musika edozein ordu eta

tokietan entzun daitekela da, bai irratieta bai tabernetan baita bidaietan, musika ezinbesteko «hobbya» bihurtu zaigu.

Azpiegitura kaxkarra

Kulturak ikuspuntu ugari eta ezberdinak sortzen ditu eta Eibarko kasuan murgiltzen ari garenez ikutu dezagun gaitetik bada ere azpiegituraren egoera. Penagarria da aipatzea baina Eibar kultura arloko azpiegituratan putzu beltz sakon batean aurkitzen da. Udaletxeko kultur aretoa eta bestelako bat edo beste kenduta ezer gutxi dago. Unibertsitatea dugu askotan salbatzen gaituen gunea baina urruntasunak jendearen komoditatea aztoratzen du eta honek oztopo salbaezina bihurtzen du. Baita ere aspaldidanik S.C.R Arrate lurperatua aurkitzen da eta soilik lokal bezala erabiltzen da; norik esango luke orain dela urte dexente zeukan bizitza ikusirik horrela amaituko zatekeenik... Bestalde Club Deportiboak urteak pasa hala lanean dirau eta bereziki kirol mundura zuzendua badago ere badu liburutegi apal bat guztiz baztertua. Clubaren barnean argazki sailekoek ordea izugarriko bultzakada eman diote eta egun dira ekintza gehien burutzen dituztenak. Ezin dugu ahaztu orain dela urte batzuek Eibarren bost bat zinema genituela eta gaur egun bakar batez konformatu beharrean aurkitzen garela. Antzerki mundua zuzenki erasotzen du instalazio egokien ez izateak. Hala ere antzerki eibartarrok osasuna, egoera onean aurkitzen dela esan dezakegu Abenduko «...eta Kitton» argitaratu genuen bezala. Musikaren hariari helduz eta salmentak alde batera utziz, lehen aipatu bezala Musika eta Txistularien Banda, Sostoa Abesbatza eta laupabost rock talde ditugu, azken hauek oso egoera kaxkarrean aurkitzen direlarik.

Azkenik eta amaitzeko aipatu beharrean gaude gure herrian kultura suspertu dadin baldintza egokiak ezinbestekoak direla eta kulturaz hitzegitea baino kulturaren alde lan egitea beharrezkoagoa dela.



Markina bidean z/g

ERMUA (BIZKAIA)

Tlfno: 943-170700-04
170597

FAX 172267

- Berugailu eta osasunerako ur beroa.
- Sukaldeak; ikatza, egurra, berogailua+ acs.
- Beheko-suak, txininiak.
- Berogailu-galdarak; gas-oil, gasa, elektrikoak.
- Termoak, ur berogailuak, radiadoreak.

CALCUL

MECANO

Zure Bulegoa Jazteko Egokienak Gara

Toribio Etxeberria

telf 70-07-50 / 70-11-95

EIBAR (Gipuzkoa)

«PUENTING»

Bezala ezagutzen dena ez da soilik kirol bat; zertxobait gehiago ere ba da: barne izaeraren kanpo espresioa, sentsazio sakonen bilaketa, eta azken finean, abentura eta arriskuaren adierazpena.

Kirol hau hobeto ezagutzeko, lehendabiziko pausoa hitz honen esanahi etimologikoaz ohartzea litzateke: Puenting = zubia egitea. Beraz, kirol honen ardatza zubia litzateke; honi dagokionez, ezinbestekoa da zubiaren altuera zabalera baino handiagoa izatea, bestela ez dago «puenting» egiterik. Zubi egokia aurkituz gero, kirol hau praktikatzeko beharrezkoa den materialak ez du inolako sekreturik gordetzen, material hau eskaladan erabiltzen dena delarik: seguridazeko soka bi (11 mm- takoak), budriela, mosketoi bi, eta «ochos» izeneko beste bi elementu. Material honen kalitatea ezin hobe denez, agian nahiko garestia atera daiteke, erreferentzia moduan 11 mm- tako soka bakoitzaren prezioa hartzen badugu, 15.000 pztz, hain zuzen.

Seguraski askok eta askok pentsatuko dute puenting- a zoroen gauza dela. Egia da kirol arriskutsua dela; arriskutsua zeren hor ez dago besorik edo hankarik apurtzerik. Baina materiala egokia baldin bada, eta dena behar den bezala prestatzen bada ez dago jauzterik.

Guzti hau kontutan izanik ere, kirol honen mamia hobeto ezagutzeko Oñati eta Arantzazu artean dagoen Araoz auzora abiatu

ginen, noski, gai horretan adituak diren lagun batzuekin. Kirol honentzat kalifikatzaile bat aukeratzekotan «inpresionagarri» delakoarekin geldituko ginateke. Lehenengo inpresioa inguruak (harrizko mendi altuak, isiltasuna eta demaseko hotza) eta, batez ere, bertan dagoen zubiaren sakonerak sortzen du. Inguru dastatu ondoren, hurrengo pausoa material guztia behar den bezala ezartzea da, eta honetarako beharrezkoa pertsona kualifikatu bat. Seguridazeko neurriak gehiagotzeko beste bi pertsonen laguntza ezinbestekoa da, hauek sokak eutsiko dituztelarik. Sokak zubiaren alde batetan lotu eta zubiaren azpitik pasatu behar dira, eta horrela, saltatzera doana zubiaren beste aldetik «botako» da. Horretarako sokan bi puntak budrielar lotu behar zaizkio, eskaladan erabiltzen diren korapilo berberak eginik. Saltoa burutu baino lehen, motxila botatzen da, dena ondo dagoela konprobatzeko.

Beraz, dena prestatua dago, eta orain zubitik behera botatzea falta da. Lehen esan dugun bezala, hemen ez dago hanka edo besorik apurtzerik. Eta, agian, hortan datza kirol honen konplexutasuna eta lilura; alde batetik badakizu segurtasun osoa daukazula, baina,



Martin Jaitza

bestalde, zubiaren sakonera ikusita baita ere badakizu bertara jauziz gero Oñatira egindako ibilaldia ezin izango diezula zeure bilobei kontatu.

Zubitik behera botatzeko modu ezberdinak daude: zuloari bizkarra emanez, aurrera begira, buruz behera (bakarrik orkatilak lotuz)... Jauziaren lehendabiziko momentuetan «jauzi libre» ematen da, eta une horietan ez dago pentsatzeko denborarik ere. Hala ere, mota askotako erreak-

zioak daude, eta agian arruntena oihuka hastearena litzateke. Berehala, sokan tenkada somatzen da eta gorputza penduleatzen hasten da zubiaren alde batetik bestera, kolunpio bat balitz moduan.

Salto batzuk burutu ondoren eguzkia erdi- ezkutatuta zegoenez, tresna guztiak poltsetan sartu eta Oñatira abiatu ginen pote batzuk hartzera, ezer gertatu ez balitz moduan, baino inpresio adierazgin batekin gure barruan.

IRAKURLEAREN TXOKOA

Hauxe don hau!!

Trasmisiño ditzosozko hori dala ta, Aiuntamentutik holako erosketa- liburuxka bat bialdu jesus-tien. Neuri eta amari, etxean ez joanu beste andrazkorik eta...

Gero jakin jonat gainera: Eibarko andra danok jaso jonagula. Eibarko gizonetzkuak tentel galantak edo bestela Aiuntamentuko Euskara- Jefe bizardun hori nahiko matxistia konpra guztiak egitea andrazkuon kontua donala uste bajone!!

Behar gendunana!! Libretia geureztat bakarrik eta gizonetzkuak orain be ez euskararik eta erosketarik bez! Aiuntamentuko Euskara Komisiñuaren hula papala bajaukanen behintzat orainguan! Egia esanda, ez jonat piparrrik konprenditzen!!

Algaraz hastekua dun baiña baji-rudin euskara, erosketak, umeak, dan- dana andron gauzia bada, gizonetzkuak zertarako jixun orduan? Selezioño naturala egin eta 100 andrazkotik gizon erdi eukita nahikua! Ez najoian gizonetzko guztiak kokilltzera gori- gori jartzeko modukua badon be! Oinguan behintzat, labankadia haundixa izan don eta sapuztu bat emotea hurrenguan «erosketak arinago egiteko» hori gizonen kontua be badon eta!!

GAXUXA KAKOLI

SARIKETA

Ba al dakizu non dagoen argazkian agertzen den irudia? Beno hori hala bada eta AYERBEk oparitutako duen liburua irabazi nahi baduzu bidal ezazu eskutitz bat (pertsonako bat onartuko da bakarrik) helbide honetara zeure datuak eta telefonoa emanez!

EIBARKO UDALA EUSKARA ZERBITZUA

«...eta Kitto Sariketa»

12. Aleko sariketaren erantzuna «Ardantza kalean dago». SARITUA AMAIA URIGUEN BASCARAN - Bista-Eder, 5-3 kalean bizi dena. Hurrengo Sariketarako Otsailaren 15erako bidali behar dira erantzunak. **SORTE ON!!!!!!**

AYERBE Liburudenda LIBURU SALDUENAK

EUSKARAZ

«Babilonia» Juan Mari Irigoyen
«Obabakoak» Bernardo Atxaga
«Bide ezezagunak» Angulo
Hiztegia 2000



ERDERAZ

«Queda la noche» Soledad Puertolas
«El péndulo de Foucault» Umberto Eco
«Caballo de Troya IV» J.J. Benitez
«La casa Rusia» Jon Le Carre

ARGAZKI - NOTIZIA

KEZKA guztien gaintetik.....

KEZKA aldizkaria jadanik kalean dugu. Lehen alea atera zenetik sei hilabete luze igaro dira eta orain eskuetan duguna bigarrena da. Oraingo hontan lodiago azaltzen zaigu, orri kopuruz gehitu egin dutelako eta itxuraz ere garbiago agertzen zaigu. Aldizkaria gehienok jakingo duzue Club Deportiboren babespean kaleratzen da eta aldizkariaren helburu nagusia, elkarte honek sortu eta burutzen dituen ekintzen berri zuzena eskeintzea da. Baina kiroletaz aparte aldizkari honek beste edozein gaietarako tokia badu, kirol mundura soilik mugatu gabe. Guztira 3500 ale banatu dira bazkide eta gremio ezberdinen artean, denok ase daitezten. Azkenik denon laguntza eskertu eta hurrengo hobeagoa irten dadin parte hartzeko gonbidapena luzatzen dizuegu, bereziki kirol zale zaretzen guztioi eta baita ere Eibarko edozein arloko gaia ikutu nahi duenari.



TRAFIKO ARAZOEZTAT GARAJIAK JOTAKE IPINTZEN ARI DIRA. BA, TORI «GARAJE MUNIZIPALA»

ZINE ETA ANTZOKIAK KENDUZ GERUAU TA KULTURA GUTXIO BAINA KOTXIA SIKU SIKUA TA GARBİ GARBİXA.



eusta Kitto

OLGA ARIZMENDIARRIETA:

Bere aitxa ta lengo Eibar gogoratu

Eibarren beste herri askotan gertau ez dan moduan, izan doguz esperantua ikasi eta berbetan zekixenak. Oiñgo ale honetan Olga Arizmendiarrietak, Santiago Arizmendiarrieta zanan alabiak, esperantua zer dan ta bere aitxak ta zelan ikasi eben azalduko desku. Horrekin batera Eibarren izan diran kanbixuen gañian be argibidiak emongo deskuz: hori dala ta bakotxak berak aukeria eukiko dau Eibar lenau zelakua zan pentsatzeko.

Esperantua izatez zer da?

«Esperantua inbentautako hizkuntza edo idioma da. Oso erreza da. Idioma honen barruan latiña da gehixen agertzen dan hizkuntzia, %60- xa edo izango da latiñan estrukturakua. Mundu guztirako balixo dau. Hamasei arau bakarrik dakaz ta oso erreza dala diñue. Ba euan len gure etxian dikzionarixo oso txiki bat euskera- esperantua agertzen zanekeu. Txiki- txikixa zan. Nik bateronbati bialdu netsan, kanpotarren bati edo, euskeraz ikasi nahi ebala eta aukeria euki zeixan».

Balixorik badaka esperantuak edo zer?

«Esperantistak gogor dabiz baña... jentia ezta nahi!! Hor be gauza guztixetan moduan zera da agertzen dana: «la ley de la oferta y la demanda». Ta badakizu, zuk saltzia nahi dozu, baña iñok be ezta nahi hori. Ideia da ba... horixe! Ideia! Ta gaur egunian idealistia generalian tontolapikua eta pobria izaten da; beti jote dau gora, bestiendako, mundurako, danen honerako... Eiñ bai baña ez da saltzen, ta hamen eztanak saltzen ezta balio. Gauza guztixen moduan, gauzak espandiru daittezan merkatua bihar da. Latiña be zabaldu zan merkatua eualako, hori be nik pentsatzen dot etzala izango «por amor al arte»

Ta zuen familixia zelan bizi zan? Aitxan bizitzia zelakua izan zan?

«Gure aitxita ta amama honatxe, Ardantza kalera ezkondu zian, ta gure aitxa be hamentxe hasi zan. Gero oso gazterik hasi zan sozialista, hortxe inguruan. Nik pentsatzen dot Toribiokin hasi zala asko, Toribio Etxeberria izan zan hamen Eibarren - lelenguetakua- eta gañera oso gizon argixa ta langillia. Bai, bai, bai... harek lan asko eiñ zeban, euskerazko dizionarixua be bai berak ta bere andriak be asko lagundu eutsan, gañera dana buruz eiñ zeben.

Ta gure aitxa ta... izan zian Toribion jarraitzalliak, Toribio mai-

xua izan zan.

Esperantuakin mil nobezientos zinkuenta inguruan edo hasi zan, eta oso... zera hartu eban, gogor!! Ta hasi zan ikasten- ikasten- ikasten baña... egunero- egunero- egunero. Toribiokin be hasi zan esperantuan eskribitzen Toribio Caracasetan euanian, baña Toribiok zera esan zetsan seigarren kartan: «asko sentitzen dot baña nik eztakat erraztasunik esperantuan eskribitzeko». Ta halantxe, ikasten- ikasten- ikasten, azkenian klasiak emoten be ibilli zan.

Aitxa... batallon de trabajadoras- en ibilli ta gero Ondarretan egon zan kartzelan. Handik urtendakuan Gernikan biarrian ibilli zan. Geruau eztakitt zenbat bihar klase eiñ ebazan... bihar be ibilli zan!! Baiña bueno, era izatez akabatzaillia zan.

Ta zuk zeuk be lana eitxen dozu?

«Ene!!... Biako! Biako eiñ! Biako!... gosiak egotia nahi ez badot behintzat. Gu pobriak izan gara beti. Gerra ostian gure amaman basarrixa zan mahatsa egoten zan leku bakarra. Domekero eztakitt baiña beti juaten giñan. Len basarrixetara jente asko juaten

Eibartarrak oso ona euki dau sintasisa, konstrukziñua oso ona euki dau baña... guk geuk, asko galdu dou!! Ni akordatzen naiz txikitxan ta gaztetan elgoibarkua, ermukua, plaentxiakua... diferentia zian, segiruan igartzan zan bakotxa nungua zan.

zan ze, razionamentua zeuan ta... holantxi ibili giñan. Gu kalera bajatu giñan ze... basarrixa aitxita ta amamana zan. Basarrixetan orduan maiorazgua zeuan. Bat geratzen zan basarrixakin ta bestiek urten eitten zeben beren dotia



haruta, dirua ta arrea izaten zan dotia.»

Mendizalia zara zu, ezta?

«Bai, bai, bai... gure aitxa ta geu be bai txiki- txikitatik juaten giñan mendira, arratsaldian edo...»

zenbat lora hazi dia? Zelakuak?

«Eibar zabaldu eiñ da. Onerako edo txarrerako ezin dot nik esan. Nik neuk neurria gehixao maitte dot, ni bizi nitzan herri txiki baten ta... hori hamendik ehun urtera beste bisioño batekin esan biharko da.

Euskeria be traketsaua eitten dala pentsatzen dot nik ze... euskeran... eibartar- eibartarra akabau da, hori akabo!! Umiek gaur eitten dabe euskeraz baña... sintasian ikeragarriko disparatiak esaten dabez.

Oiñ neretako kanbixorik haundixena mendixetan izan da: arbola guztixak kendu, ta neretako arbolia be ezta, piñu ziztriñori sartu eben. Len ez zeuan piñurik!! Ugarixenak: kastaña, pagua... ta beste asko!! Ba neretzako txarrena hoixe, mendiko lengo basuak ikusi ta oinguk ikusi... Len piñudixak kontatze-kuak zian! Harek zian harek basuak!! Dana berdia!! Piñuakin oster harek arbola ederrak kendu, ganetik beste arbolei kalte eiñ, ta mendi ta baso guztixak danak bal- baltz josi dabez.»

Zu txikixa ziñanetik Eibarren

■ Esperantua asmatutakua da.

■ Gaur idealistia pobria da.

■ Aitxak Toribiokin ikasi eban.

■ Eibar zabaldu eiñ da.

■ Euskera eibartarra... akabo!!

■ Mendixak piñuz jositta.

GARAJE GARCIA

Austin Rover Zerbitzua

— Fundidores
— Bidebarrieta 39
Telf.: 11.22.14 / 11.02.83

pintxo bar

San Juan 3 - Telf. 700899

GURE LEKU

PINTXO GOZOAK ETA KAFE EZIN HOBEA
ISASI-3 TFNO. 11-71-89

Comercial ETESA

BULEGO-MATERIALA-ALTZARIAK
BIDEBARRIETA, 66
TELEFONO 121973-74
20600 EIBAR GIPUZKOA

GURBIL

Pizzeria Jatelexea
isasi kalea-1
eibar tf-111152

Mujika HARATE GIA

Odolosteak Txorizoak Bildots eta Txahal okelak
Bidebarrieta, 12
Urkizu, 18 - Telf 120194

Eibarko Parke Mobila eta Ondorioak



Eibarrek arazo asko izan arren ez dago, dudarik larrienetako bat trafikoa dela. Nor ez da haserretu herri hau automobilez gurutzatu izan duenean?

Abel, taxisten presidentziako batek, dienez «munizipal efikazak, profesionalagoak behar dira. Gruaren sistema entxufe bezala beteta dago. Guk askotan taxiak bigarren filan jarri behar ditugu. Munizipalak jende asko ezagutzen du, eta horrela zailagoa da bere lana. Baita ere jendea oso komodoa da. Nahiz eta gehienek garajea izan komoditatez herri erdian uzten dute autoa. Eta guzti honekin batera, ez dut uste bariantea, ez autopistaren lotura soluzioa denik, zeren arazoa herri barnean ematen da, «karga eta deskarga» tokietan batez ere. Eta orain taxime-troaren arazoa azaldu zaigu. Bat batean udale-txeak berau jartzera behartu gaitu, bakarrik taxista kopuru minimo batek eskatu ondoren.»

Baina normala denez jendea ez da ados jartzen arazo honen soluzioan

EIBARKO PARKE MOBILA	
IBILGAILU- MOTA	KANTITATEA
Autoak	9.449
Autobusak	53
Kamioiak 3500 K.tik gora	182
Kamioiak 3500 K.tik behera	485
Traktoreak	23
Erremolkeak	25
Motorrak	322

Miguel, «Vinos Orozeko» errepanti-tzaileak dienez: «soluzioa autopistaren lotura da. Baita kaleen arteko loturak egitea, jende guztiak herri erditik ez pasatzeko. Baina arazoa ez dut lehen baino txartoagoa ikusten, hain zuzenere, «karga eta deskargako» seinale gehiago ipini dutenetik. Baita ere oso barregarria ikusten dut jai bisperetan obraren bat egiten has-

ten direnean».

Jose Miguel Callek udaltzain buruak dienez: «10.000 automobil daude orain Eibarren kanpoan, hau da garajetik kanpo, 6.000 daudelarik. Beraz oso saturatuta dago. Gainera Eibar zerbitzu-hiria da. Soluzio bat kaleen artean bideak egitea izango lirake. Baita ere aparkaleku gehiago egitea Txantza- zelai, Okamikan eta Txontan. Arazoa da ez dagoela tokirik, adibidez ambulatorioak, udale-txeak, epaiketa etxean ez dute aparkalekurik. Bai mugitzera-koan eta bai aparkatzerakoan arazoa dago. Gero guak kanpotarrei eramaten die normalean despistatuak harra-patzen ditu eta. Entxufismoak ere egoten dira zeren pertsonak garen bitartean... Baina ez lukete egon

behar. Dena dela munizipalak beti daude kalean eta badakite nolakoa den jendea kasu hauetan. Beti ere munizipalaren lagunen bat beti hobeto konpondu ez litzateke gertatu behar. Ez dago munizipal-lik gruaren lana gustatzen zaionik».

Baita ere esan behar da Eibarrek Estatuko media altuena duela automobiletan. Urtero 500 auto gehiago daude Eibarren.

Eibarko parke mobila 10.539-koa da. Zer diñozu horren aurrean?



Enrike Lopez, 31 urte. Udaltzaina (munizipala) «Kotxe larregi daude Eibarren, zoritxarrez behar direnak baino askoz gehiago. Eta noski, modu honetan aparkaleku falta demasa daukagu; txaltxa- zelaiak eta Untzagak konpontzen dute pixka bat egoera latz hau, baina ez da nahikoa, hauzotan problema serioak daude».



M. Jesus, 36 urte. Etxekoandrea. «Gai hau oso problematikoa iruditzen zait, aparkatzeko toki gutxi daukagu Eibarren. Jendeak ahal duen bezala aparkatzen ditu kotxeak eta honek atasku demasak sortarazten ditu. Nire ustez bariante batek problema hau konponduko luke».



Bixente Ramirez, 23 urte. Langabezian. «Kopuru honekin normala da trafikoa desastre bat eginda egotea. Honi aurre egiteko bariante bat egin beharko litzateke. Eibarren munizipalen lana ez da batere ona, ez dute inola ere euren funtzioa betetzen».



Begoña eta Jose. Etxekoandrea eta langilea. «Kotxe asko eta aparkaleku gutxi, hau da Eibarko problemarik latzena. Munizipalak ez dute batere laguntzen, kasu batzutan aparkatzea debekatu beharrean utzi egiten dute gero guak eraman dezan eta dirua ordain dezaten».



Maritxu eta Miren, Etxekoandreak. «Larregi daudela, noski, karretera pasatzeko bildurrez ibiltzen gara eta! Karabana haundiak izaten dira beti, eta askotan jendeak edozertarako hartzen du kotxea».



Eugenio Teruelo, 30 urte. Langilea. «Hainbeste kotxerekin txantxa- zelain aparkaleku on bat egitea izango litzateke soluzioa, soluzio partzial bat, noski, zeren Eibar osorako ez litzateke nahikoa izango.»



M. Mar, 14 urte. Ikaslea. «Kontsumismoak dauka guzti honen errua. Askok eta askok nahiz eta behar ez izan kotxe bat baino gehiago daukate, eta Eibarren toki larregirik ez dagoenez, egoera nahiko larria da.»



Rosa, Jubilatua. «Horrelako zifrak zinez ezin dira. Gaur egun mundu guztiak dauka kotxea, eta ez bakarrik bat, badaude familia asko bi edo hiru kotxe dituztenak.»



Rikardo, 55 urte. Langabezian. «Ez dakit zer egin behar dugun hainbeste kotxerekin! Trafikoa pixka bat lasaitzeko barjante bat egitea izango litzateke egokiena.»



Ainara eta Nerea, 16 urte. Ikasleak. «Hainbeste kotxerekin aparkaleku eskasia dago. Gure ustez garaje gehiago egon beharko litzateke.»

AGENDA

ERAKUSKETAK (Kultura Batzordea)

Urtarrilaren 21- 31ra: EIBARKO ARTISTEN ELKARTEA
Otsailaren lehen 15aldian: EIBARKO ITURRIAK (Ingurugiro Batzordea)
Otsailaren azken 15aldian: Etnografia (Jon Ituarte)

KLUB DEPORTIBOA

K. Deportiboko ARGAZKI TALDEAK antolaturiko ARGAZKI ERAKUSKETA.
Otsailaren 17- 28ra L.K.A.ren Erakustokian (J. Etxeberria kalean)
«AGUSTIN SAGASTI»ren lanak.
Mendia: Orduña- Salvada - Orduña. Otsailaren 10ean (Nagusiepdako) l surbe (Beasain). Otsailaren 4ean (txikitxoendako). Izenak Deportiboan.
Eskitaldea: Permanenteak astelehen, asteazken, ostiral 19,30etan.

ARATUSTEAK: Otsailaren 22tik- 27ra

SASKIGINTZA IKASTAROA: Otsailaren 5tik aurrera. Astelehen eta asteazkenetan, arrats. 19tik- 21tara. 20 orduko ikastaroa.
MATRIKULA 3.300.- Pzta. Ipuruako «Centro Familiar»ean.

SAN BLAS- OGIAREN ERREZETA

Orain ezagutzen dugun San Blas lehen aberatsek jaten zutena ei da. Ondoren ematen duguna pobreen San Blasaren errezeta da:
OSAGAIAK: Ura: 250/Urna: 250/legamia (apur bat) Arraultz gorringoa Azukrea.

Ura urun eta legamiar nahastu. Urun gehiago botatzen joan dena ondo batu arte. «Masa» lau- lau jarri eta labanaz sei puntako izar baten forma emanez. Arraultz gorringoarekin igurtzi. Azukrea gainetik bota. Labean sartu kolorea hartu arte. On egin.

ERREDAKZIOAREN OHARRA

Agendaren txoko hau oso garrantzitsua denez herritar zein antolatzaileentzat talde, kolektibo, erakunde eta elkarte guztiok zera eskatzen dizuegu: Hilero 15a baino lehen hurrengo hileko ekintzen berri ematea. MILA ESKER.

NORK ZER

Koordinatzailea: Fernando Muniozguren
Erredakzio- taldea
Ana Aizpura
Joseba Zinkunegi
Mireia Ugarteburu
Idoia Irazola
Fernando Muniozguren
Amaia Muruamendiaraz
Argazkilariak
José Valderrey
Maketazioa
José Valderrey
Joseba Zinkunegi
Komikia
Ander Gisasola
Inprimaketa
Antza